

ENPRESEN konfiantza

2022KO 4. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa

2022KO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK





0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2022ko laugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko.

Ingurune ekonomikoak okerrera egin duela erakutsi dute emaitzek.


INGURUNE EKONOMIKOARI buruzko enpresen aurreikuspenetik hasita, % 2,8k bakarrik uste du hobetu egingo dela oraingo egoerarekin alderatuta. Beraz, ekonomiaren bilakaerari buruzko ikuspegi ezkorra da nagusi.

Bestalde, laugarren hiruhilekoan ekonomiak hazkunde negatiboa izango duela iritzi diote inkestari erantzun dioten enpresen erdiek baino pixka bat gehiagok.




1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAK, berriz, okerrera egingo du 2022ko laugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoaren aldean, enpresen aurreikuspenen arabera. Zehazki, galdetutako enpresen % 15,7k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 57,9ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 26,4k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2022 laugarren hiruhilekoan espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, enpresen % 7,5ek uste du hobetu egingo dela, eta % 34,3k, okertu egingo dela. Laginaren gainerako % 58,3ak, beraz, berdin mantenduko dela pentsatzen du.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, emaitzek iragartzen dute eskariak murriztu eta prezioak igo egingo direla. Ondoren agertzen den irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 12,2k uste du bolumena handitu egingo dela, eta % 28,7k txikitu egingo dela. Enpresen % 59,1en iritziz, ordea, eskabideen bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 20,1ek espero du igo egingo direla, eta % 60,2k, egonkor mantenduko direla.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 95,7ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 4,3k soilik espero du etekin handiagoak lortzea.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi ezkorragoa erakusten dute urteko azken hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek moteldu egingo dituztela inbertsio-planak, egoera ekonomikoa nolabait ere okertu egingo dela aurreikusita.

Hala, INBERTSIOAren bolumenari dagokionez, enpresen % 10,6k uste du handitu egingo dutela 2022ko laugarren hiruhilekoan, eta % 22,8k, berriz, inbertsio-bolumenak behera egitea espero du. Hortaz, galdetutako enpresen % 66,5 inbertsioak mantendu egingo direlakoan dago.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 81,1ek erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 5,9k langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 13k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2022KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 42ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Horrek esan nahi du konfiantzak behera egin duela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (50,6). Beraz, enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, 2022 laugarren hiruhilekoari begira. Gainera, indizearen balioa 50etik behera dagoenez, uzurtze-eremuan dago, eta beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutakoa baino apalagoa da. Espainian, esaterako, 50,5eko datua lortu zen abuztuan, eta Eurogunean, 48,9koa hil berean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 14k uste du hobetu egin direla, eta % 26,3k, okertu egin direla. Beraz, % 59,6k uste du atzerriko salmentak mantendu egin direla.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 78,4 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 5,6k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 80,7ren ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 17,3ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 2k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaturen % 79,5ek erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 5,9k dio hobetu egin dela, eta % 14,6k, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berroneratzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inkesta honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten, eta bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen % 73,9k ezagutzen du plana, eta soilik % 16,8k uste du funts horien onuradun izan daitekeen proiekturen bat duela.

Next Generation Funtsak ezagutzea



Next Generation Funtsak eskuratzea






2022AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 2 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
